

Abestia: Movimiento. Jorge Drexler: (3min 51s)

er altxor oparitzen digu abestiak, zer ideia erakutsi nahi digu?

Bideoan Youtuben dago eskuragarri:

<https://youtu.be/rGLJSfpAqU>



Abestia Spotifyn dago eskuragarri

<https://open.spotify.com/track/7pBoi7yWCPzn3UjeMsGKg6?si=2bnBiBJ-Qh2-i6bIHHRp7Q>



Hona hemen abestiaren letra: <https://genius.com/Jorge-drexler-movimiento-lyrics>

Movimiento

Apenas nos pusimos en dos pies
Comenzamos a migrar por la sabana
Siguiendo la manada de bisontes
Más allá del horizonte
A nuevas tierras, lejanas
Los niños a la espalda y expectantes
Los ojos en alerta, todo oídos
Olfateando aquel desconcertante paisaje nuevo,
desconocido

Somos una especie en viaje
No tenemos pertenencias sino equipaje
Vamos con el polen en el viento
Estamos vivos porque estamos en movimiento
Nunca estamos quietos, somos trashumantes
Somos padres, hijos, nietos y bisnietos de inmigrantes
Es más mío le que sueño que lo que toco

Yo no soy de aquí
Pero tú tampoco
Yo no soy de aquí
Pero tú tampoco
De ningún lado del todo
De todos lados un poco

Atravesamos desiertos, glaciares, continentes
El mundo entero de extremo a extremo
Empecinados, supervivientes
El ojo en el viento y en las corrientes
La mano firme en el remo
Cargamos con nuestras guerras

Nuestras canciones de cuna
Nuestro rumbo hecho de versos
De migraciones, de hambrunas
Y así ha sido siempre, desde el infinito
Fuimos la gota de agua viajando en el meteorito
Cruzamos galaxias, vacío, milenios
Buscábamos oxígeno, encontramos sueños

Apenas nos pusimos en dos pies
Y nos vimos en la sombra de la hoguera
Escuchamos la voz del desafío
Siempre miramos el río
Pensando en la otra rivera

Somos una especie en viaje
No tenemos pertenencias sino equipaje
Vamos con el polen en el viento
Estamos vivos porque estamos en movimiento
Nunca estamos quietos, somos trashumantes
Somos padres, hijos, nietos y bisnietos de inmigrantes
Es más mío le que sueño que lo que toco

Yo no soy de aquí
Pero tú tampoco
Yo no soy de aquí
Pero tú tampoco
De ningún lado del todo y
De todos lados un poco

Lo mismo con las canciones, los pájaros, los alfabetos
Si quieres que algo se muera, déjalo quieto.



Bideoa: “The DNA Journey” (5min 16s)

Zer altxor oparitzen digu bideoak, zer ideia erakutsi nahi digu?

Momondo bidaia-konpainiak zenbait nazionalitatetako 67 lagunen DNARI buruzko ikerketa egin zuen. Baduzu hementxe ikusterik eta zeure ondorioak ateratzerik:: <https://youtu.be/tyaEQEmt5ls>



Bideoa ingelesez badago ere, gogoan izan YouTuben badaukazula azpigituluak erraz-erraz aktibatzerik eta zeure hizkuntza aukeratzerik..



Artikulua: Partekatzeko espiritua. María López Carceller.

Eranskin honetan, artikulua oso-osorik agertzen da, prentsan azaldu zen bezala. Hori dela eta, beharrezkoa izan liteke artikulua edukia eta maila gure ikasleentzat egokia den aztertzea (gogoan izan bi bertsio errazago ere badaudela eskuragarri).

Jatorrizko artikulua eskuratzeko: <http://www.diarioinformacion.com/portada-alicante/2010/02/27/espiritu-compartir/985709.html>, Alicanteko Información egunkaria.



Partekatzeko espiritua

Elkartasuna, abegia eta partekatzeko prestasuna ezkutuko emigrazioak gehien zigortutako herrialdeetakoa den Senegalgo kulturaren ezaugarri bereizgarriak dira.

MARÍA LÓPEZ-CARCELLER*. Afrikako kontinentera bidaiatzean, inoren jarrera ez da epela. Berez, kanpotik iristen denak hausnarketa sakona egiten du partekatzeko eta nonbaitekoa izateko balioari buruz. Senegalgo kulturen murgiltzeko astia edukitzea aukera aparta da bertako kulturen txertatutako elkartasuna eta abegia hurbiletik ezagutzeko.

Senegaldarren arteko eguneroko harremanetan, trukea darabilte, partekatzea harreman horien guztien oinarria da-eta. “Ni” gizabanakoaren eta “gu” taldearen arteko mugak lausotu egiten direnez, desagertu egiten dira ia-ia. Testuinguru horretan elkarrekin bizitzea ikasbide ona da pentsatzen eta interes erkidearen alde jokatzeko ikasteko orduan. Hain zuzen ere, norberaren eremuaren eta taldearen eremuaren arteko muga gainditzeko ezinbesteko pasaporte ere bada. Horrez gain, taldearen ikuspegitik harremanetan jartzeko aukera ere bada, gizakiak euren ondasun faltsuetan isolatu eta giltzapetu egiten dituzten eredu berekoiak une batez alde batera utzita.

Ondasunak ahaztea, nonbaitekoa izateko, taldea eratze eta eskuzabaltasuna bera balio moduan berreskuratzeko. Eguneroko xehetasun txikietan partekatzea: etxea ateak zabalik beti, bertako bizilagunak eta auzokideak sartzeko eta irteteko, bertan dauden guztiak gonbidatu gabe inoiz hasten ez den plater bakarra jateko edo sandalien truke harrigarria garatzeko beste batek bere oinetakoak darabiltzalako inor gogaitu gabe. Norberarena denaren kontzeptua beste kultura batzuetan baino askoz malguagoa da.

Iparralderagotik iristen direnentzat, batzuetan zaila da elkarbizitzarako oinarrizkoak diren bi eremu hauek egokitzea: norberaren eremua eta taldearena, testuinguru indibidualistara ohituta daudelako. Bertan, hain zuzen ere, lehia sustatzen da, eta ondo ikusita dago metatutako ondasunengatik taldetik bertatik bereiztea. Hori dela eta, elkartasuna bera ez da aberastasun kulturala, instituzionalizatu egiten delako eta egunez egunekoan bat-batean garatzen ez delako.

Partekatzea ez da eskupekoa ematea eskalea alde batera uzteko eta urruntzeko. Partekatzea norberaren eremua irekitzea da, beste batek bertan eskuragarri dauden baliabideei onura atera diezaien. Partekatzea baliabide bereko onuradunen kopurua gehitzea da. Europako mugen itxura hermetikoari begiratu besterik ez dago, zenbait gizartek partekatzeko daukaten ezintasunari erreparatzeko.

Aire-konpainiek ekipajearen pisua murrizten dutela kontuan hartuta, mailetak prestatzen hasi bezain laster sortzen dira niaren eta guaren arteko tirabirak, berekoikeriaren eta partekatzeko prestasunaren artekoak, alegia. Hau da, ekarpen solidario moduan zer eraman (aukera hori proposatu bada) eta norberarentzat zer eraman, nire gauzentzat eta emateko daramatzadan beste gauza horientzat zenbat leku utzi erabakitzen hasi bezain laster

Senegaldarrentzat, lotuneen bidez eratzen da norberaren balioa. Ni neu naiz, nonbaitekoa naizelako eta eskaini egiten dudalako eta ez ni neu naiz, nabarmendu egiten naizelako eta gorde egiten dudalako. Gizakien nortasuna partekatutako kidetza familiar, etniko edo erlijiosoaren bidez sortzen da. Ia-ia ez dira norberaren bertuteak nabarmentzen. Norbera taldeko kidea da, eta kidetza horrengatik nabarmentzen da, hau da, harremanak ezartzeko eta partekatzeko daukan gaitasunagatik eta ez hainbeste bereizteko duen gaitasunagatik. Jendeak elkar ezagutzen du edo elkar ezagutzera ausartzen da zailtasun handirik gabe. Hartara, lotuneak hedatzen dira auzoen, herrien zein hirien artean eta migrazio-mugimenduekin, baita herrialdeekin eurekin ere. Trukatu eta elkarrekin lan egiten dute. Batzuek beste batzuegana eramaten dituzte gainerakoak, harreman mugagabeen sarean, eta, euren arteko tratua adeitasunezkoa da, orduantxe elkar ezagutu arren. Esparru kolektiboa funtsezko printzipioa dela errespetatzea eta niaren mugetatik harago pentsatzea Senegalgo kulturaren oinarritzko balioa da.

Edonola ere, partekatzeko espiritu hori ez da beti hain konstruktiboa, horren ondorioz sortutako egoeretan gizabanakoa estu eta larri ere egon daitekeelako nahi bezala laguntzeko aukerarik ez edukitzean. Etorkin langabetu asko egoera horretan daude harrerako gizartean, eta ezin diete ezer bidali itxaropen guztia haiengan jartzean irrikaz dauden familiei.

Partekatzea bera larregi balioetsiz gero, baliteke biktimistak ere agertzea eta, posizio etsigarrietatik, gehien dutenen laguntzari onura ateratzeko eskatzea, hau da, elkartasuna berezko eskubide moduan aldarrikatzea, bere aurrerakuntzaz zein hobekuntzaz arduratu gabe. Horren ondorioz, elkarmenpektasuna eta berdintasunezko trukea mendetasun bihurtzen dira. Ahulenek indartsuenen aurrean duten mendetasun ekonomikoa. Hori ez da alde bakar baten mesederako ere, bien askatasuna murrizten duelako. Izan ere, bata arduraz zein betebeharrez gainezka egongo da, eta besteak bere autonomia galduko du.

Senegalgo kulturak partekatzeko espiritu hori arnasten du, eta norberaren zein taldearen arteko interes-borrokari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Gatazka konstruktibo eta beharrezkoa da elkarbizitzan, norberaren zein gainerakoen premien arteko oreka berrezartzen laguntzen duelako, “guaren” inguruko kontzientzia, gainerakoen ongizateak norberaren ongizatean daukan eragina eta “Terangaren” herrialdean hain errotuta dagoen elkarmenpektasunaren lege naturala kontuan hartuta.

(*) **María López-Carceller** antropologoa eta kultura arteko bitartekaria da. Gaur egun, Senegalgo zenbait proiektu humanitariotan parte hartzen du tokiko elkarteetan eta GKE-en bidez. Haien artean, Alacanteko Kumare la Kumo Elkarteak garatzen duena nabarmendu beharra dago, eta Senegalgo emakume baztertuei mikrokredituak ematea dauka helburu. Era berean, gazteei ezkutuko immigrazioaren arazoei buruzko informazioa emateko ekintzetan ere parte hartzen du.



Artikulua: Partekatzeko espiritua. María López Carceller.

Eranskin honetan, jatorrizko artikuluaren **laburpena** agertzen da (oso-osorik ere badago eskuragarri 4.A. eranskinean). Bertsio errazagoa ere badago 4.B. eranskinean.

Partekatzeko espiritua

Elkartasuna, abegia eta partekatzeko prestasuna ezkutuko emigrazioak gehien zigortutako herrialdeetako den Senegalgo kulturaren ezaugarri bereizgarriak dira.

MARÍA LÓPEZ-CARCELLER*. Afrikako kontinentera bidaiatzean, inoren jarrera ez da epela. Berez, kanpotik iristen denak hausnarketa sakona egiten du partekatzeko eta nonbaitekoa izateko balioari buruz. Senegalgo kulturen murgiltzeko astia edukitzea aukera aparta da bertako kulturen txertatutako elkartasuna eta abegia hurbiletik ezagutzeko.

Senegaldarren arteko eguneroko harremanetan, trukea darabilte, partekatzea harreman horien guztien oinarria da-eta. “Ni” gizabanakoaren eta “gu” taldearen arteko mugak lausotu egiten direnez, desagertu egiten dira ia-ia. Testuinguru horretan elkarrekin bizitzea ikasbide ona da pentsatzen eta interes erkidearen alde jokatzeko orduan. Hain zuzen ere, norberaren eremuaren eta taldearen eremuaren arteko muga gainditzeko ezinbesteko pasaportea ere bada. Horrez gain, taldearen ikuspegitik harremanetan jartzeko aukera ere bada, gizakiak euren ondasun faltsuetan isolatu eta giltzapetu egiten dituzten eredu berekoiak une batez alde batera utzita.



Ondasunak ahaztea, nonbaitekoa izateko, taldea eratzeke eta eskuzabaltasuna bera balio moduan berreskuratzeke. Eguneroko xehetasun txikietan partekatzea: etxea ateak zabalik beti, bertako bizilagunak eta auzokideak sartzeko eta irteteko, bertan dauden guztiak gonbidatu gabe inoiz hasten ez den plater bakarra jateko edo sandalien truke harrigarria garatzeko beste batek bere oinetakoak darabiltzalako inor gogaitu gabe. Norberarena denaren kontzeptua beste kultura batzuetan baino askoz malguagoa da.

Iparralderagotik iristen direnentzat, batzuetan zaila da elkarbizitzarako oinarrizkoak diren bi eremu hauek egokitzea: norberaren eremua eta taldearena, testuinguru indibidualistara ohituta daudelako. Bertan, hain zuzen ere, lehia sustatzen da, eta ondo ikusita dago metatutako ondasunengatik taldetik bertatik bereiztea. Hori dela eta, elkartasuna bera ez da aberastasun kulturala, instituzionalizatu egiten delako eta egunez egunekoan bat-batean garatzen ez delako.

Partekatzea ez da eskupekoa ematea eskalea alde batera uzteko eta urruntzeko. Partekatzea norberaren eremua irekitzea da, beste batek bertan eskuragarri dauden baliabideei onura atera diezaien. Partekatzea baliabide bereko onuradunen kopurua gehitzea da. Europako mugen itxura hermetikoari begiratu besterik ez dago, zenbait gizartek partekatzeko daukaten ezintasunari erreparatzeko.

Senegaldarrentzat, lotuneen bidez eratzen da norberaren balioa. Ni neu naiz, nonbaitekoa naizelako eta eskaini egiten dudalako eta ez ni neu naiz, nabarmendu egiten naizelako eta gorde egiten dudalako. Gizakien nortasuna partekatutako kideza familiar, etniko edo erlijiosoaren bidez sortzen da. Ia-ia ez dira norberaren bertuteak nabarmentzen. Norbera taldeko kidea da, eta kideza horrengatik nabarmentzen da, hau da, harremanak ezartzeko eta partekatzeko daukan gaitasunagatik eta ez hainbeste bereizteko duen gaitasunagatik. Jendeak elkar ezagutzen du edo elkar ezagutzera ausartzen da zailtasun handirik gabe. Hartara, lotuneak hedatzen dira auzoen, herrien zein hirien artean eta migrazio-mugimenduekin, baita herrialdeekin eurekin ere. Trukatu eta elkarrekin lan egiten dute. Batzuek beste batzuegana eramaten dituzte gainerakoak, harreman mugagabeen sarean, eta, euren arteko tratua adeitasunezkoa da, orduantxe elkar ezagutu arren. Esparru kolektiboa funtsezko printzipioa dela errespetatzea eta niaren mugetatik harago pentsatzea Senegalgo kulturaren oinarritzko balioa da.

Edonola ere, partekatzeko espiritu hori ez da beti hain konstruktiboa, horren ondorioz sortutako egoeretan gizabanakoa estu eta larri ere egon daitekeelako nahi bezala laguntzeko aukerarik ez edukitzean. Etorkin langabetu asko egoera horretan daude harrerako gizartean, eta ezin diete ezer bidali itxaropen guztia haiengan jartzean irrikaz dauden familiei.

(...)

Partekatzea bera larregi balioetsiz gero, baliteke biktimistak ere agertzea eta, posizio etsigarrietatik, gehien dutenen laguntzari onura ateratzeko eskatzea, hau da, elkartasuna berezko eskubide moduan aldarrikatzea, bere aurrerakuntzaz zein hobekuntzaz arduratu gabe.

(*) **María López-Carceller** antropologoa eta kultura arteko bitartekaria da



Artikulua: Partekatzeko espiritua. María López Carceller.

Eranskin honetan, jatorrizko artikuluaren **moldaketa** agertzen da (Hiztegia eta esaldi batzuk moldatu ditugu errazago egiteko. Bertsio originala 4.A. eranskinean.)

Partekatzeko espiritua

Elkartasuna, abegia eta partekatzeko prestasuna ezkutuko emigrazioak gehien zigortutako herrialdeetako den Senegalgo kulturaren ezaugarri bereizgarriak dira.

MARÍA LÓPEZ-CARCELLER*. Afrikako kontinentera bidaiatzean, inoren jarrera ez da epela. Berez, kanpotik iristen denak hausnarketa sakona egiten du partekatzeko eta nonbaitekoa izateko balioari buruz. Senegalgo kulturen murgiltzea aukera aparta da bertako kulturaren elkartasunerako eta harrerarako balioak hurbiletik ezagutzeko.

Eguneroko harremanetan, senegaldarrek trukea darabilte, euren harremanak partekatzean oinarritzen dira-eta. “Ni” gizabanakoaren eta “gu” taldearen arteko mugek indarra galdu dute, desagertzeraino ia-ia. Testuinguru horretan elkarrekin bizitzea modurik egokiena da pentsatzen eta taldearen alde jokatzeko. Hain zuzen ere, norberaren eremuaren eta taldearen eremuaren arteko muga gainditzeko aukera ezin hobea ere bada. Horrez gain, taldearen ikuspegitik harremanetan jartzeko aukera ere bada, gizakiak euren ondasun faltsuetan isolatu eta giltzapetu egiten dituzten eredu berekoiak une batez alde batera utzita.

Ondasunak ahaztu, nonbaitekoa izateko, taldea eratzeko eta eskuzabaltasuna balio moduan berreskuratzeko. Eguneroko xehetasun txikietan

partekatu: etxeko ateak zabalik beti, bertako bizilagunak eta auzokideak sartu eta irten daitezten, bertaratutako guztiak gonbidatuz plater bakarretik jatea edo sandalien truke harrigarria garatzea beste batek bere oinetakoak darabiltzalako inor gogaitu gabe. Norberarena denaren kontzeptua beste kultura batzuetan baino askoz malguagoa da.

Iparralderagotik iristen direnentzat, batzuetan zaila da elkarbizitzarako oinarrizkoak diren bi eremu hauek egokitzea: norberaren eremua eta taldearena, testuinguru indibidualistara ohituta daudelako. Bertan, hain zuzen ere, lehia sustatzen da, eta ondo ikusita dago metatutako ondasunengatik taldetik bereiztea. Hori dela eta, elkartasuna ez da aberastasun kulturala, instituzionalizatu egiten delako eta egunez egunekoan bat-batean garatzen ez delako.

Partekatzea ez da eskupekoa ematea eskalea alde batera uzteko eta urruntzeko. Partekatzea norberaren eremua irekitzea da, beste batek bertan eskuragarri dauden baliabideei onura atera diezaien. Partekatzea baliabide bereko onuradunen kopurua gehitzea da. Europako mugek itxura hermetikoari begiratu besterik ez dago, zenbait gizarte partekatzeko daukaten ezintasunari erreparatzeko



Senegaldarrentzat, lotuneen bidez eratzen da norberaren balioa. Ni neu naiz, nonbaitekoa naizelako eta eskaini egiten dudalako eta ez ni neu naiz, nabarmendu egiten naizelako eta gorde egiten dudalako. Gizakien nortasuna partekatutako kidetza familiar, etniko edo erlijiosoaren bidez sortzen da. Ia-ia ez dira norberaren bertuteak nabarmentzen. Norbera taldeko kidea da, eta kidetza horrengatik nabarmentzen da, hau da, harremanak ezartzeko eta partekatzeko daukan gaitasunagatik eta ez bereizteko duen gaitasunagatik. Jendeak elkar ezagutzen du edo elkar ezagutzera ausartzen da zailtasun handirik gabe. Horrela, lotuneak hedatzen dira auzoen, herrien zein hirien artean eta migrazio-mugimenduekin, baita herrialdeekin eurekin ere. Trukatu eta elkarrekin lan egiten dute. Batzuek beste batzuegana eramaten dituzte gainerakoak, harreman mugagabeen sarean, eta, euren arteko tratua adeitasunezkoa da, orduantxe elkar ezagutu arren. Esparru kolektiboarekiko errespetua eta niaren mugetatik harago pentsatzea dira Senegalgo kulturaren oinarritzko balioa.



Edonola ere, partekatzeko espiritu hori ez da beti hain konstruktiboa izaten, sentimendu horrek sortutako egoeretan gizabanakoa estu eta larri ere egon daitekeelako nahi bezala laguntzeko aukerarik ez badu. Hori da lanik ez duten etorkin askoren egoera, eta ezin diete ezer bidali itxaropen guztia haiengan jarrita duten familiei. (...)

Senegalgo kulturak partekatzea du oinarri, norberaren. Kontzeptu horren bidez berrezartzen ldu norberaren eta taldearen beharizanen arteko oreka, besteen ongizateak norbanakoaren ongizatean duen eragin zuzenaren bidez. Hori da Senegalen, Terangaren herrialdean, hain erroturik dagoen elkarrekiko mendekotasun naturalaren legea.

(*) **María López-Carceller** antropologoa eta kultura arteko bitartekaria da

